


Euskara ikasi, euskaraz aritu!

Ikastolako gurasoek euskaraz mintzatzeko egiten duzuen hautuak ikasleen euskararekiko atxikimenduan duen eragina ezagututa, familia guztiei deialdia egiten dizuegu berriro ere, ahal den guztietan euskaraz aritzeko. Helburu horrekin, norberaren ezagutza maila areagotu edota mintza praktikan sakondu nahi izanez gero, urtero bezala, Ikastolan bertan euskara- eskolak eskainiko ditugu aurten ere. ANIMA ZAITEZTE! Irakurri [zirkularra](#), eta bete inprimakia!



Eskola kirolaren hasiera

Datorren astelehenean (irailak 27) emango diogu hasiera Eskola Kirolari. Ikasturte honetan, gainera, asteburuetako partidak berreskuratuko ditugu (partaideei zuzenean helaraziko zaie informazio zehatzagoa).



Haur Minbiziaren eguna

Gaur Haur Minbiziaren eguna da. Hori dela eta, HH4ko ikasleok ikastola apaintzeko urre koloreko lazoak egin ditugu. Bide batez, minbizia duten haurrei eta haien familiei elkartasuna adierazi nahi diegu.



Zinemaldia Ikastolara iritsi da

Donostiako Zinemaldia zinema- aretoetan bakarrik ez, Ikastolan ere ospatzen da! Belodromoa Ikastetxeetan ekimenean parte hartu dugu aurten ere, eta "Tadeo Jones 2: Midas erregearen sekretua" filma ikusten ari gara LHko geletan.



LH2koak naturaz gozatzeko

LH 2. mailako ikasleok naturaz gozatzeko ibili ginen Ulian atzo. Zeinen ederra den naturarekin kontaktuan gure arteko harremanak sendotu ahal izatea!



Garraio zerbitzurako txartel solteak

Azken izen-emateak direla eta, 12:30eko autobus-zerbitzuan ezingo da txartelik erabili autobusean plaza librerik ez dagoelako. Bestelako ordutegietan (09:00, 14:30 eta 16:30), idazkaritzan txartelak saltzen jarraituko dugu, orain arte bezala.



Zurrimendiren ikasturteko irteerak

Aurten ere, mendiaz euskaraz gozatzeko irrikitan gaude Zurrimendiko lagunak, eta, horretarako, ikasturte honetako irteerak antolatu ditugu. Anima zaitezte!!



OHARRAK / AGENDA:

- **Guraso bilerak:** Txosten berriak [ikusgai](#).
- **DBH1:** Ikasturte hasierako irteerak. Irailak 30 - urriak 1. 1A: Zarautz. 1B: Hondarribi. 1C: Orio.
- **HABE C1:** Diru-laguntza eskatzeko deialdia, gainditu zutenentzat. [Zirkularra](#).
- **Zerbitzuetako lan-poltsa:** [Galdetegia](#).
- **Eusko Jaurlaritzako bekak:** Epea: irailak 30. [Zirkularra](#) eta [boletina](#).
- **Konfinatutako ikasleari arreta:** [Informazioa](#).

